



“Erretiro pentsioek, orain arte ezagutu ditugun bezala, oso urte gutxi iraungo dute”

Santiago Niño Becerra

Egitura Ekonomikoko katedraduna IQS School of Management-Ramon Llull Unibertsitatean

Izango al dugu etorkizun hurbilean pentsioak jasotzeko aukerarik? Santiago Niño Becerra ekonomialariak ezetz dio, ez behintzat gaur egun egiten den bezala. Eta arazoa ez da bizitza itxaropena handitu izana (hori ere murriztu egingo da diru sariak apaldu ahala), Administrazioak biltzen duenaren eta gastatzen duenaren artean ageri den tartea baizik: diru sarreak txikiagoak dira gastuak baino. “Lau edo bost urterako” erreserba omen daukagu, eta hortik aurrera oinarritzko errenta unibertsal bat ezarriko omen dute. Horregatik, ahal duenak (gaur egun ez dira asko Espainiako Estatuan) gauzak planifikatu eta aurreztu egin behar luke pentsioak osatzeko.

Bizitza itxaropena handitzen ari da eta Gizarte Segurantzako kotizazioak murrizten... Zer-nolako etorkizuna datorkigu? Ez zait iruditzen bizitza itxaropena denik arazoa: hori ere murriztu egingo da gizarte babeserako diru sariak gutxitu ahala, batez ere osasun arlokoak. Arazoaren muina da diru sarreraren bilakaera gastuenaren atzetik joango dela: ugaritu egingo dira kotizazio apalak dituzten onuradunak, batez besteko soldatak txikiagoak izango direlako langabezia estruktural handiaren eraginez eta aldi laburreko lanek gero eta pisu handiagoa hartzearen eraginez. Etorkizuna? Pentsioak jaitsi egingo dira.

Kalkuluek diotenez, 2040. urtean, lan egiteko adina izango duen herritar bakoitzeko, lanerako adinik ez duen beste bat egongo da. Iritsiko al da erretiro saririk kobratu ezingo den eguna? Erretiro pentsioek, orain arte ezagutu ditugun bezala, oso urte gutxi iraungo dutela iruditzen zait. Alde batetik, diru sarrerak falta dira,

lehen esan bezala; bestetik, ez dira nahitaezkoak, orain ez baita beharrezkoa ‘langile klasea lasaitzea’ Gerra Hotzaren garaian zen bezala; eta, bestetik, kontsumo masiboan oinarritzen den hazkundea atzera geratu da orain dela urte batzuk. Beti jasoko da pentsio motaren bat, ordena publikoa zaintzeko besterik ez bada ere, baina uste dut oinarritzko errenta unibertsal baten itxura izango duela gehiago.

Eta izango al da dirurik pentsioak ordaintzeko? Espainiako Gizarte Segurantzak (nagusiki pentsioek eta langabezia sariak) %1,8ko defizita izan zuen iaz; hau da, erreserba kutxari esker iraun zuen. Azken urteetako erritmoan, lauzpabost urterako dirua dago kutxan, eta hortik aurrera murrizketak izugarriak izan daitezke.

Krisi ekonomikoak pentsioetan izango duen eragina urte batzuen buruan sumatuko omen da... Noiz eragingo die eta nola? Pentsiodunek lehenik sumatuko dutena izango da –dagoeneko sumatzen hasiak dira– erosteko ahalmena galtzen ari direla; gero diru saria murriztuko diete. Eta, tarte horretan, kalkulatzeko sistema aldatuz joango dira: lan-bizitza osoa hartuko dute kontuan, luzatu egingo dute pentsioak jaso ahal izateko kotizazio aldia...

Gobernu askok erabaki dute erretiratzeko adina atzeratzea. Neurri eraginkorra da? Politikariek hartzen duten ohiko neurria da, kolore batekoek eta besteok: arazoa atzeratzea, biharko uztea.

Erretiratzeko adina atzeratuta, murriztu egiten da pentsioetan guztira ordaindu beharrekoa. Erretiratzeko adina atzeratzeak, gaur egungo testuinguruan, non lan eskaria dagoen, baldintza apalagoetan izanik ere,

oztopatu besterik ez du egiten gazteak lan merkatuan sartzeko aukera. Neurri horrek izan dezakeen gausa on bakarra da zenbait pertsonak errenta handiagoa jasoko dutela lanean ari diren bitartean, gero jasoko luketen pentsioarekin alderatuta.

Espainiako Estatuko herritarren ia erdiak kezkatuta daude zer-nolako etorkizuna izango ote duten erretiroa hartu ondoren, baina “kezkatu pasiboak” esaten diete, ez dutelako deus egiten. Zer egin behar lukete? Espainiar gehienek ez dezakete deus ere egin, erosteko ahalmenak ez dielako ematen aurrezteko adina. Alde batetik, espainiarren %50en soldata mila eurokoa edo txikiagoa da; bestetik, pentsiodunen %60k familiarri lagundu behar diote; eta bestetik, pentsio-funtsetara egiten diren ekarpenen %90 abenduan egiten dira eta zerga-kenkariak lortzeko izaten dira. eta onura horiek galtzeko arriskua dago, gainera. Espainian jende gutxi aurreztu dezake pentsioa osatzeko, horixe da egoera.

Aurreztea izango bada espainiarren aukera bakarra, noiz hasi behar lukete? Ahal dutenek modua izan bezain laster hasi behar lukete planifikatzen, baina aurrezki-funtsen baldintzek malguak izan beharko dute, pertsona askok aldi baterako eta/edo aldi laburreko kontratuak izango baitituzte.

“Etorkizunean ere jasoko dira erretiro-pentsioak, baina ez dira izango egungoak bezalakoak”

Inmaculada
Dominguez

Enpresa Ikasketen
irakaslea Extremadurako
Unibertsitatean

Ekonomiako irakaslea eta gainera pentsioen gaian aditua da Inmaculada Dominguez Fabian. Pentsioak ez omen dira desagertuko, hala uste du, baina ez omen dira izango gaur egungoen berdinak. Aurreztea komeni dela dio, jasoko dugun pentsioa osatzeko modua izan dezagun, baliteke-eta txikiagoa izatea. Izan ere, aldaketa demografikoek bestelako arau batzuk eskatzen dituzte pentsioak kalkulatzeko, eta langabeziak bere horretan jarraitzen badu, pentsio eskubideak ere apaldu egingo dira.

Luzaroago bizi gara eta gero eta jende gutxiagok kotizatzen du Gizarte Segurantzari... Zer-nolako etorkizuna datorrigu? Espainiako pentsio sistema banaketa bidezkoa da, eta urte bateko pentsioak urte horretako kotizazioekin ordaintzen dira. Herri-tarrak zahartzeko arriskuaren menpe dago, eta hori kontuan hartu behar da pentsioak kalkulatzeko. Baina arrisku horiek murrizteko helburuz, 2011. eta 2013. urteetan erreformak egin dituzte Espainiako pentsio sisteman.

Aldaketa demografikoek bestelako arauak eskatzen dituzte pentsioak kalkulatzeko, eta egungo langabeziak jarraitzen badu, pentsio eskubideak ere apaldu egingo dira.

Hemendik hogeita bost urtera lan egiteko adinean dagoen pertsona bakoitzeko beste bat egongo balitz lan egiteko adinik ez duena, gerta al daiteke uneren batean pentsiorik kobratzeko modurik ez izatea? Seguru nago etorkizunean erretiro-pentsioak jasoko ditugula, nahiz eta ez diren izango egungoak bezalakoak. Bizitza itxaropena luzatzeak eta haur gutxiago jaiotzeak berekin ekarriko du pentsio txikiagoak luza-

roago jasotzea, erretiro adina atzeratzea pentsioak jasotzen jarraitzeko, edo zergetan gehiago ordaintzea eta horrela orekatzeko pentsioa luzaroago jaso ahal izatea.

Eta izango al da dirurik pentsioak ordaintzeko? Bai, pentsio sistema doitu egin delako eta erreformak egin zaizkiolako. Ez da hain segurua izango, hala ere, oraingo baldintzetan eta kopuruetan jasotzea.

Askok esaten du egungo krisi ekonomikoak pentsioetan izango duen eragina urte batzuen buruan sumatuko dela... Noiz eragingo die eta nola? Hasiak gara eraginak ikusten, eta hain zuzen horrexegatik aurreratu dira 2027. urterako aurreikusiak zeuden erreforma batzuk eta 2013an ezarri. Krisiaren eragin nagusia enplegua erortzea izan da eta, ondorioz, kotizazioak ere bai. Horrek likidezia edo kutxa arazo bat ekarri dio Gizarte Segurantzari, eta hori konpontzeko, Erreserba Funtse erabil daitezke eta Pentsioak Eguneratzeko Indizea sortu, zeina mekanismo automatikoa baita doikuntzak egiteko.

Erretiro adina atzeratzea al da irtenbidea? Erretiro adina atzeratzeko erabakiak duen abantaila da baliagarria dela Gizarte Segurantzako gastuak murrizteko eta diru sarrerak handitzeko, luzatu egiten duelako kotizazio aldia eta laburtu pentsio kobratzekoa. Irtenbide eraginkorra da neurri bateraino behintzat, ez daitekeelako atzeratu mugarik gabe eta lan merkatuak horretarako aukera eman behar duelako.

Erretiro adina 65 urtean jarri zenean, 68 urtekoa zen bizitza itxaropena, baina gaur egun ez gaude egoera horretan; hori dela eta, gobernu gehienek aldatu egin dute parametro hori.

Hogeitaz urte barru, pentsio publiko txiki batekin... lan bizitzan behar adina aurrezteko modurik izan ez bada, zer-nolako etorkizuna izango da gaur egun gizarteari ekarpenak egiten ari zaizkienentzat? Ongizate Estatuak bermatu egin behar ditu beti kotizatu gabeko pentsioen eta gutxieneko pentsioen kopuruak. Hain zuzen, Espainiako Estatuan egin den erreforma bakar batek ere ez ditu kendu edo mugatu laguntza-prestazio horiek eta ezta gutxieneko kopuruak ere. Hala ere, ez zait iruditzen inolaz ere iritsiko garenik erretiro-pentsio publikorik izango ez den egoerara.

Pentsio sistemaren beraren erreformak egiteaz gain, kudeaketa publikoan eta politikoan badira beste aukera batzuk ere; adibidez, zergak igotzea, gehiago zorpetzea edo beste gastu batzuk murriztea, eta kotizazioen arloko iruzurraren aurka edo prestazioak jasotzeko garaian egiten den iruzurraren aurka borrokatzea.

+ www.consumer.es

